

Miguel Angel Ortiz de Landalucek Asociación Española de la Carretera elkartearen ohorezko domina jaso du

Bere ibilbide profesionala eta Arabako bide sarea berritu, hobetu eta seguru egiteko konpromisoa saritzen ditu

Gasteiz, 2021eko ekainaren 10a.- Arabako Foru Aldundiko Errepide Zerbitzuaren buru Miguel Angel Ortiz de Landalucek Asociación Española de la Carretera elkartearen errepideko ohorezko domina jaso du gaur, aipamen bereziarekin, bere ibilbide profesionalagatik eta Arabako bide sarea berritu, hobetu eta seguru egiteko duen konpromisoagatik.

Domina emateko ekitaldia gaur egin da Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Goi Eskola Teknikoko auditoriumean. Han izan dira Blanca de la Peña Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatua eta Carlos Ibarlucea Bide Azpiegituren zuzendaria.

Miguel Angel Ortiz de Landaluce 1985ean hasi zen lanean Arabako Foru Aldundian bide, ubide eta portuetako ingeniari gisa; lehenbizi, obra zuzendari ibili zen eta, geroago, Errepideak Hobetzeko Atalaren buru eta Plangintza, Proiektu eta Obra Zerbitzuaren buru, eta 2003. urteaz geroztik Errepide Zerbitzuaren burua da.

Azken 36 urteotan, Ortiz de Landalucek parte hartu du honako hauek egiteko lanetan: Euskal Autonomia Erkidegoko errepideen plan orokorrak eta Arabako errepideen plan integralak; errepideen, trafikoaren zarata murrizteko eta bizikleta bideen foru arauak; eta Arabako errepideak hobetu eta egokitzeko hainbat proiekturen idazketa, zuzendaritza eta gauzatzea.

Besteak beste: Burgos eta Nafarroako mugen arteko A-1 autobidearen eta Gasteiz eta Eibar arteko AP-1 autobidearen proiektuak eta eraikuntza; N-240, N-102 eta N-124 errepideak bikoizteko proiektuak eta eraikuntza; eta lehentasunezko intereseko, oinarritzko, eskualdeko, tokiko eta auzo bideen sareetako 500 kilometro baino gehiago hobetu eta berritzeo proiektuak.

Asociación Española de la Carretera elkarteak ohorezko domina ematearen bidez saritzen ditu lan hori eta lan horren emaitzak, zeinak baitira bide sare “arin eta seguruagoa” izatea, istripu ugari bide tarteei irtenbidea jartzea, bide segurtasuna areagotzea hiri barruko tartetan eta zeharbideetan, lurralde garapen orekatua bultzatzea eta foru errepideetan zirkulazioaren kalitatea hobetzea.

Hori guztia, azpimarratu duenez, paisaia eta ingurumena errespetatuz, eta bultzatuz errepidea hobeto integra dadila zeharkatzen duen ingurune naturalean.